

«LAGUNTZA HUMANITARIOA» JASAN DUTEN HERRIALDEAK

«Laguntza humanitarioa» deritzona nazio burujabeen aurkako esku-hartze eta gerra mekanismo bat da. Aurreko mendean dagoeneko erabili bazen ere, XXI. mendean finkatu zen. Mende honetan behin eta berriz erabili dute tranpa hori Pentagonoak eta NATOko kideek. Ezagutzen ditugun esperientzien artean, bakar batek ere ez du lagundu ustez laguntza behar zuten biztanleen egoera hobetzen.

Somalia (1993). Somalian historiako goseterik gogorrenetako bat bizitu zuten. 1993an, Pentagonoak «esku-hartze» humanitarioaren tresna erabili zuen Somalian, eta 30 mila marine bidali zituzten bertara, «Itxaropena berreskuratu» izeneko operazioan. Herrialde afrikarreko gosea eta osasun-krisia 10 aldiz biderkatu ziren. «Laguntza humanitarioa» herrialde hartako baliabide naturalak militarizatzeko kamuflaje bat izan zen.

Jugoslavia (1999). NATOko arduradun nagusien arabera, Jugoslaviako gobernuak «hondamendi humanitario» bat eragin zuen, kosovarren ustezko genozidioaren (garbiketa etnikoaren) aitzakiarekin. Jugoslaviaren aurkako aireko erasoak 1999ko martxotik ekainaren 10era egin ziren. Herrialdea apurtu zuten. Gaur egun, Kosovo «esku-hartze humanitario» horren emaitza da; narkotrafikoaren eta armen merkatuaren gune logistikoa Europan.

Irak (2003). Urteetan zehar, AEBek eta haien «aliatuek» blokeo ekonomiko eta finantzario bat mantendu zuten Iraken. Neurri horrek bizi-baldintza prekarioak eragin zituen: elikagai-gabezia eta oinarritzko produktu sanitarioen falta. Mendebaldeko potentziek eragindako muturreko egoera hori, justifikazio gisa erabili zuten «esku-hartze humanitario» bat egiteko. Esku-hartze horren ondorioz, Irak desegituratuta gelditu zen, gobernu menderatu zuten eta Estatu Islamikoa sortzeko baldintzak sortu ziren.

Haiti (2010). 2010eko lurrikarak 1,5 milioi pertsona pobrezian utzi zituen eta 8.000 milioi dolarreko galera materialak eragin zituen. AEBek eta NBek bideratutako «inbasio humanitario» berriak MINUSTAH misioa eraman zuen herrialdera (7.000 soldadu eta polizia). Denborarekin, Haitiko biztanleek ehunka salaketa jarri zituzten atzerriko segurtasun indarren aurka, abusu kriminalak direla eta (sexu- eta indar-abusuak). «Laguntza humanitarioak» ez zuen ezertarako balio izan. Gaur egun, Haitin aldian behingo matxinadetako bat bizi dute.

Libia (2011). Mendebaldeko komunikabideek berri faltsuak zabaldu zituzten Muammar Gaddafiren gobernuak Libiako biztanleen aurka egiten ari zen ustezko sarraskiaren inguruan. Herrialde horri «krisi humanitarioaren» etiketa ezarri zitzaion. Horrela legitimatu zen NATOren eraso bortitza. Telesur-ek emandako zifren arabera, 350.000 errefuxiatu eta 20.000 hildako eragin zituen «esku-hartze humanitarioak», Libia porrot egindako estatu bilakatu da; izan ere, gobernu paralelo bat baino gehiago dago, talde armatuek haien artean banatzen dute lurraldearen kontrola, eta etorkin afrikarrak esklabo bihurtzen dira bertan.

